

2002-08-15  
kioskoa

Eneko Bidegain

Uholdeak eta  
Johannesburgoko  
goi bilera

Azken egunetan gertatzen ari diren uholdeekin, «klima aldaketari» buruzko kezak ugaritu dira egunkaritan. *L'Humanite*-k «garapenaren desorekak» salatu ditu, guztiak ez dutela aro txarrari erantzuteko baliabiderik argudiatuta. *Liberation*-ek «hazkunde demografikoa, urbanismo anarkikoa eta oihanen suntsitzea, atmosferaren berotzea» bezain erruduntzat jo ditu, azkenaldietan Europa erdialdean eta Asian gertatu hondamendiak aipatzerakoan. «Ekaitzak, euriteak eta haizeteak ez dira, adituen arabera, bertze urte batzuetan baino ugariagoak eta bortitzagoak».

Horiek hola, guztiak bat egin zuten ezbehar klimatologiko horiek zenbait egunen buruan Johannesburgon irekiko den Lurraren goi bilera-ekin. Goi bilera horrek «planetak daukan mehatxuak aztertzeko balio izan behar dio nazioarteko komunitateari» dio *El Mundo*-k. Hitzordu honi begira ere kezak ageri dira, ordea. «Kiotokoa bezala, bertze hitzordu hutsegin bat izanen ote da?» galdetzen du *L'Humanite*-k. *Gara*-k Estatu Batuen jarrera ukatzailea esperantza ez emateko gisakoa dela nabarmendu du. *Liberation*-ek ere «amerikarren tematzea» salatu du.

*El Mundo*-k uste du «AEBek nazioarteko komunitatearekin bat egin behar» dutela. *L'Humanite* beldur da George Bush ez ote den Johannesburgoko goi bileraren «hausten» ari, lehenago haren aitak Rion egin zuen gisan. Estatu Batuek klimarekin, gaineratekoekin bezala, dena baldintzatu nahi dutela eta hori gelditu behar dela azpimarratu du egunkari komunistak, hauen «urguilua jasangaitza» dela salatu ondian.



## udamina

Pako Aristi

Auñamendi  
entziklopedia

1520. urte inguruan, Hernán Cortés konkistatzaileak Mexikotik idatzi zion Karlos I.a Espainiako erregeari, lurralde berriak deskribatuz. Hala ere, une batean eten egiten du narrazioa, espainiar lautadako gaztelera lehorra ikusten ari den guztia agertzeko ezdeusa zaiola aitortuz: «Gauza hauei izenik jaritzen ez dakidalako, ez ditut adierazten».

Mundu bibliko bat zeukaten begien aurrean, gerora Gabriel Garcia Marquezek ederki deskribatuko zuena, hitz hauekin hasita: «Mundua hain berria zen, gauza askok izenik ere ez zeukatela, eta aipatzekotan hatzarekin seinalatu behar ziren».

Cortésék kronista bat zeraman, Bernal Díaz del Castillo, baina adituek maiz salatu dute kronista hauen idatziak gezur ikaragarriak zirela; ikusten zuten paisajea deskribatzeko hitzik eta egitura semantikorik ez zeukaten, eta egin zutena izan zen Sevillako San Isidorok Erdi Aroan idatzi zuen bestiarioa

oso-osorik plagiatu, liburuko pizti harrigarriak han ikusten zizutela baieztatuz. Ez ziren konturatu biztanleek mintzo duten hizkuntza ere paisajearen zati bat dela, ezinbesteko baldintza elkarren bizitzak ulertzeko. Ulermena, noski, ez zen haien lehen helburua.

XIX. mendean, Ameriketako Estatu Batuetan, kolonizatzaile europarrak hainbat hitzarmen sinatu zituzten buruzagi indioekin. Gaurko ikertzaileek akats larri bat aurkitu dute hitzarmen horietan guztietan: indioek ez zuten hizkuntza hura ezagutzen, ez zekiten irakurtzen ezta idazten ere. Dokumentu horiek fraude bat omen dira, salatu dute; Estatu Batuen historia fraude batean oinarrituta dago.

1976an, Robert Laughlin linguista iparramerikarrak bere lana aurkeztu zuen. Liburu bat zen: Tzotzil hiztegia, 14 urtez bildu zuena. Bertan, Chiapaseko 120.000 biztanle mintzo duten maiar hizkuntza ingelesekeratua ageri zen. Zinacantán hirira iritsi zen, Mexiko hegoaldean. Epaila zegoen tzotzilzar zahararengana agertu, bere aurrean belaunikatu eta liburua jarri zion eskuetan, esanez: «Kanpotarren bat baldin badator indio inozo eta hiltzaileak besterik ez zaretela esanez, mesedez erakutsi iezaiezu liburua hau. Erakutsi zuen jakinduriak eman dituen 30.000 hitz hauek».

Auñamendi Entziklopedia ere eskura daukagu berriro Interneten: 50 tomo, 60.000 irudi, 40.000 orri, gure jakinduriaren erakusgarri.

## hizpideak

Iruñeko ondarea  
suntsitze bidean

Ondarearen Defentsarako Herri Ekimenak atzo salatu zuenez, Iruñeko Gazteluko plazan lurrazpiko aparkalekua egiteko aurrera eramaten ari diren lanak plazako harreria suntsitzen ari dira. Harresiak garrantzia arkeologiko berezia du, eta Vianako Printzea erakundeak berak agindu zuen aparkalekuaren barruan jartzeko. Eyssa enpresaren aurkako hitz gogorak izan zituen herri ekimenak, baina baita Vianako Printzea erakundearentzat ere, eta lanak egiten ari den enpresaren «interes zaintzaile hutsa» izatea leporatu zion. Herri ekimena kexu agertu zen euskal aztarnategiak deusezten ari direlako ere, eta horren atzean berebiziko interesa dagoela salatu. Enpresa, Vianako Printzea eta agintariak epaitegietara eraman gogortu dituela berretsi zuen herri ekimenak.

Barguti, Israelgo  
epaileen aurrean

Israeliek Maruan Barguti Al Fata erakundeko buruzagi eta diputatu palestinarra auzipetu zuen atzo, Tel Aviven hasitako prozesuan. Barguti otsailean atxilotu zuen Israelgo Armadak bigarren *intifada* bitartean «hainbat hilketa» agindu izana leporatuta, eta horixe berori egotzi zion atzo epaileak. Buruzagi palestinarrek, hala ere, bakearen aldeko militantetzat jo zuen bere burua, eta bake hori «bakarrrik okupazioa amaituta» iritsiko dela nabarmendu zuen agerraldian.

Barguti politikari pragmatikotzat jo dute Israelgo bakearen aldeko mugimenduek eta, adituen iritziz, Jasser Arafat presidente palestinarren ordezkaria izan liteke. Giza eskubideen aldeko mugimenduek buruzagi palestinarra kartzelan torturatu izana leporatu diote Israeli.

## hemeroteka



PANCHO / LE MONDE

Ahal dugun guztia egin dugu bueltan jasotzeko.

Egunkaria

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Mikel Sorozabal

Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain Tel.: 943300222  
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 800/90 ISSN 1134-640X  
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENAORDEZKARITZAK - Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz  
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965Nafarroa: Irabxe Monasterioa, 45-13 esk. (Irritzidorra) 31011 Iruñea  
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715  
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35, 1 503 Posta  
kubxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511